...eta kitto!
827 zkia.
2012-XII-5



# Durangon ere badihardugu

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta irtsi
gure webgunera

· Presbiziaren kirurgia.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

• Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMQ, ADESLAS, SANTA LUCIA, FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

ELGOIBARko San Miguel gainean

Abenduaren 14ean:
Modistillak (DJ)
Abenduaren 15ean:
Maridajea (Idiazabal gazta)

Belaustegi Baserria
JATETXEA
www.belaustegi.com




INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Tel. 943 74 31 02

# ASTEAN ESANAK

"Europako estatuak 46 dira eta hizkuntzak 68tik gora. Munduan, berriz, estatuak 204 dira eta hizkuntzak 6.000tik gora. XXI. mende honetan, hiru mila desagertu egingo dira, gehienak 10.000 hiztun izatera iristen ez direlako"

(DAVID CRYSTAL, HIZKUNTZALARIA)

"Mugikortasun soziala aipatzeak piramide sozialean goitik behera amiltzen direnak ekartzen dizkigu gogora. Denok gaude zalantzan, denok gaude bihar edo etzi eskale izateko arrisku bizian"

(JOXEAN AGIRRE, IDAZLEA)

"Obraren bati ezker abertzaleko kutsua sumatu orduko, politikaren gehiegizko zama eta moralismoa leporatuko diote, ezker abertzalekoak ez direnak *l'art pour lárt*-en sabel birjinatik, makula-izpirik gabe helduko balitz eran "

(MARKOS ZAPIAIN, FILOSOFOA)

"Martetar bat etorriko balitz, hartuko lukeen inpresioa litzateke gurea sekta baten hizkuntza dela. Akademiaren arauak %80an segitu behar dira; hizkuntza bizirik dagoen seinale izaten da arauak %100ean ez betetzea"

(IÑAKI SEGUROLA, IDAZLEA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

IZATEKUA IZAN.- Norbaitek egindakoa goraipatzeko edo gaitzesteko erabiltzen da. *"Hi haiz hi, izatekua!".*

IZATERA.- Baldintzazko esaldia. Izan ezkero. *"Juliandiak, ona izatera diru asko balixo izaten dau".* Juliandiak ona izan ezkero / izatera ezkero, diru asko balixo izaten dau.

# eskutitzak

## ITSASOAN LANDARAK ALDATZEN

Xenpelarri egin edo gerta ezinezkoa adieraziko zukeen bertsoa osatzeko, honako puntu hau ezarri zioten: *"Itsasoan ari dira landarak aldatzen".*

Berak honela osatu zuen:

*"Itsuak ikusi du etxia erretzen /*
*mutuak deiadar egin, gorra zan aditzen /*
*hankamotzak bazekik bidia korritzen".*

Orain, krisia dela-eta, bertso horrek dioen pareko zentzugabekeria duten ekintzak eskaintzen zaizkigu lanpostuak ugaltzeko eta normaltasunera itzultzeko.

Hemengo lantegiak atzerriratzea: atzerriko lan merkeari esker, irabazi bikainak lortzeak hemen lanpostuak ugaltzeko balioko lukeela esanez. Globalizazioa deritzana, alegia.

Produktu bat ekoizteko dirurik gutxien beharko den lekuan ariko da edozein enpresa. Han kokatzean hemen lanpostuak murriztuz eta han jendea esplotatuz. Globalizazioa eta esplotazioa, biak!

Horrela irabazitako diruak teknologian aurrerapausoak ekarriko lituzkeela honera, ekoizteko teknika berrien bitartez hemen lana merkeago eta hobeto egin ahal izateko. Hala bedi!

Bitartean, ordaindu ezinezko enbarguengatik, etxea eta etxea erosi zeneko dirutango balioa ordaintzera behartuak, guraso jubilatuei esker bizi diren gazte langabetuak, langabetu horien euskarri direnen jubilazioak izoztuak eta, neurri "aurrerakoi" horiek Europak txalotuak.

Pasakaitzik ez da gure munduan; gerrate eta ondorengo goseteak ezagutu genituen. Aurrera egiteko beharrezko diren ekintzak eta bidezko jarrerak hartzen asma dezagula!

**PEDRO LAKA**

## PAILAZOETAN AHAZTUTAKOAK

Joan den asteburuan Unibertsitate Laboralean izandako Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en ikuskizunean hainbat gauza agertu ziren, baten batzuk ahaztuta lagatakoak: bi kapel, txubaskero baten txanoa, bi fular, motxila bat, poltsa txiki berde bat, tximino-panpina, baberoa, toallita txiki bat eta zintzilikari bat. Horien jabeak …eta kitto! Euskara Elkartearen bulegotik pasa daitezke jasotzera (Urkizu 11, solairuartea).

**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA**


**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Badihardugu
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.000 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).


**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!


**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679


*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*



EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

# autuan

## ARBASOEN DEIA

**Abenduko zubirako hitzordu bi antolatu dittue Arbasoen Deia programaren barruan: hillaren 6xan Burdiñolen Ibilbidia egitteko aukeria egongo da eta 8xan Paleolitiko Ibilbidia. Erreserbetarako 943 19 11 72 / 695 78 36 56 telefonuetara deittu edo debanatura@hotmail.com helbidera idatzi leike.**

## STOP DESAHUCIOS

**Debabarrena maillako Stop Desahucios plataformia abenduaren 15ian eratuko dabe, 12.00xetan Ibarkurutzeko Casino Artistan. Herrittarren ekimenez sortutako taldiarekin bat egitteko 699143751 edo 943755204 telefonora deittu leike (Imanol Goikoetxea).**

## ESTAZIÑOKO AZOKIA

**Abenduaren 22xan azokia egingo dabe Estaziñoko dendarixak eta bertan egoteko interesa daken artisau eta bestelakuak eurekin kontaktuan ipintzera animau nahi dittue, geltokielkartea@hotmail.com helbidera idatzitta edo 605773424 telefonora deittuta.**

# Correos-eko bihargiñak greban




**Astelehenian ekin zetsen** greba mugagabiari Eibarko Correos-eko bihargiñak, postarixen asanbladak eta Gipuzkuako Correos-eko ordezkaritza sindikalak (CC.OO, UGT, ESK, LAB eta ELA) osotasunian egindako deialdixarekin bat eginda. Correos-eko zuzendaritzak etxerik etxe ibiltzen diran postarixetako bost kaleratu nahi dittuala salatu nahi dabe holan. Bihargiñen berbetan, *"Eibarko etxietara kartak eta banatzen dittuen postarixen kopurua %23 jaitsi nahi dabe, 14tik 9ra"*. Murrizketiak bihargiñeri ez eze herrittarreri be eragingo detsela azpimarratu nahi dabe: *"Zerbitzuaren kalidadiak okerrera egingo dau eta, bestiak beste, entrega-epiak luzatu egingo dira"*.

# Eibarko kalien planua Pegoran

**Gure herriko kale-izendegixa nahi dabenak** hartzeko moduan ipiñi dabe Pegoran. Edizio barrixan azken urtiotako kanbixuak (Erisonoko polo teknologikua, Legarre Gaiñeko etxe barrixak...) jaso dittue eta 10.000 ale kaleratu dira. Atzeko orrixan EMGIri atxikitako denda guztiak dagoz planuan kokatuta. Planua Zure-leku enpresiak egin dau eta multimedia bersiñuan be eskuratu leike www.eibar.net webgunian. Interneterako bersiñuak, gaiñera, hainbat erremintta dakaz.






# Mario Onaindiaren fondua artxibora

**Mario Onaindia Fundaziñuak bere dokumentu-funtsa** gordailluan laga detsa Eibarko Udalari. Agiriz betetako 207 kutxa laga detsaz hórretxek katalogatzeko eta digitalizatzeko biharrian dihardue egunotan, eta katalogatzen eta digitalizatzen juan ahala, kutxak Eibarko Udal Artxibuan lagatzen juango dira. Aittatutakuetatik aparte, katalogatzen hasi barri dittuen beste 32 kutxa gehixago dagoz.

# Elikagaixak eta jostailluak batzeko kanpaiña



**Eibarko sozialistak, Gurutze Gorrixarekin** eta Elikagai Bankuarekin alkarlanian, jostailluak eta jatekuak batzeko kanpaiña daka martxan: jatekuen artian premiña haundixena olixo, azukre, arroz, pasta, baba, lenteja, garbantxo, esne eta konserbetan dake. Lagundu nahi dabenak gauzak Casa del Pueblon (Isasi, 2-2. pisua) lagatzeko aukeria izango dau, abenduaren 17xan kanpaiña amaittu aurretik.

## Baldur Barik matxismuaren aurrian

**Andren kontrako indarkerixia salatzeko** egunaren harira, Mujeres al Cuadrado alkartekuak Untzagan emon eben goiza gaixaren gaiñian informaziñua emoteko ipiñitako karpan. Eta Udaleko Bardintasun Saillak Emakumien Mahaixarekin lankidetzan antolatutako konzentraziñuan "Beldur Barik jarrera Eibarren" goiburuko pankartia zabaldu eben.



Azaruaren 25ian indarkerixa matxista salatu eben. LEIRE ITURBE

## Zuzeneko disko aurkezpena

**Eibarko Herrirak antolatutako Azken Ostirala** berezixa izan zan aurrekuan, San Andres egunarekin bat egiñ ebalako. Horregaittik egunerako antolatutako ekitaldixa hilleroko ohiko giza-katetik aldendu eta zihero diferentia izan zan: Eroa Nazan, Napoka Iria, Norman, Josu Gil eta Mikel Arrietak zuzenian kontzertua eskindu eben Txaltxa Zelaixan, egun gitxi barru argixa ikusiko daben diskua aurkezteko. Josu Gil kantautoriak Ibon Muñoaren "Ametsen txokoan bizi naiz" poema liburuko batzuk musikatu zittuan eta diskuak kontzertuan jardun ebenak (Ekinocio taldiarekin batera) egindako bersiñuak batzen dittu. Mikel Zarraberen irudixekin osatutako liburutxo batekin batera kaleratuko da.



## Nabarralderen saio bikoitza

**Arrate Kultur Elkarteak antolatuta**, "Nabarralde: Memoria Historikotik Etorkizun Nahiak" izenburuari jarraittuko detsen ekitaldi bi izango dittugu datozen egunotan alkartiaren lokalian: datorren astian bertan, hillaren 12xan "Orreaga" DVD barrixaren proiekziñua eta mahai-inguru irekixa egingo dira, 19.00etan hasitta. Eta hillaren 19xan toki eta ordu berian Aitzol Altunak hitzaldixa emongo dau "Bizkaiaren jatorrixa" izenburuari jarraittuta.






## Sostoaren otarra

**Azaruaren 23an egiñ eben** Sostoa abesbatzakuak otarraren zozketia Toribio Etxebarria kalian eta sarixa argazkixan ikusten dozuen Aitor Alberdirendako izan zan (hori koloreko 2.416 zenbakixa zekan txartelarekin). Zorionak!



## Gabonetako argixak

**San Andres bezperan ixotu zittuen** Gabonetako argixak. Errege egunera arte martxan egongo diran argixak Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekimenez ipiñi dittue eta Udalak eta EMGIk pagauko dittuen 48.400 euroko gastua eukiko dabe. Kale garrantzitsuenak apaintzen 86 motibo dagoz totalian.



# BARTOLOME EGURROLA AZPIAZU

*1926-V-17 / 2012-XI-14*

*SEKULA EZ ZAITUGU AHAZTUKO.*

*Emaztea, seme-alabak, bilobak eta senide guztiak.*

Gure eskerrik beroenak doluminean lagundu gaituzuen guztioi.







**Belarritako karratuaa:**
34,60 euro



**Eguzkilore zintzilikarioa:**
30,20 euro








**Zintzilikario karratua:**
18 euro

**Katea:**
20 euro

**Arbolarako Olentzero:**
3,50 euro



**Narruzko pultsera:**
11,80 euro



**Harmarria zintzilikarioa:**
23,60 euro









**Pultsera:**
46 euro



**Hautsontzi handia:**
9,30 euro euro



**Umien kamiseta:**
20 euro





**Kamiseta Nafarroa:**
12 euro







**Kamiseta Bertso B:**
15 euro



**Kamiseta Revolution:**
17 euro

**Kamiseta Bertso A:**
15 euro

**Txanponetakoa:**
4 euro



**Gerriko poltsa:**
12 euro



**Kitto-amantala:**
10 euro



**Kitto-amantala:**
15 euro




**Aterako alfonbra:** 12 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)

**ASTELEHENETIK BARIXAKURA**
**10.00-13.00/16.30-19.30**

## IKUSI, AUKERATU eta EGIN ENKARGUA!



Txotxongiloa B: 35 euro

Txotxongiloa A: 35 euro

# ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA

KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU

...eta kitto! Euskara Elkartea

KARRIKIRI



Aurrez aurre: 12 euro



Begiak lekuko: 15 euro



Erraiak: 16,70 euro




Gozategi All Stars: 16,70 euro



Herri musika ta dantza: 11 euro



Ibilean: 18,50 euro



Nafarroa Bizirik: 12 euro




Oroimenaren oraina: 19,65 euro



Xabier Lete zuzenean: 24 euro



Gartxot: 14 euro



Txantxariak: 20 euro

## Disko, DVD eta Liburuak







Zorion argiak: 16,70 euro



Kafe aleak: 15 euro

Historia Nafarra: 18 euro








## Telefono zenbakiak

*Gauren muturrera heltzen garenean eta halabeharrez telefono zenbakia eskatzen badizut, arren, nahita erratu zaitez eta bota ezazu unean datorkizun asmatutako zenbaki arrotzen bat: Barraren apalategiko likore botila garestienaren destilazio urtea edo botila merkeenaren iraungipen data. Kendu dizkidazun zigarro kopurua edo zapaldu berri dudan tabako paketearen barra kodea. Zure ikaskide lodikotearen bularretakoaren neurria edo zure literatura irakasle bakartiaren dortokari zentzeko geratzen zaizkion minutuak. Hurrengo bost hilabeteetarako aurreikusten den inflazio tasa edo erretiroa hartzen dudan urteko loteria saritua. Emagaldu herren horren takoi ortopedikoaren zentimetroak edo bere bezero izan daitekeen gizagaixoak eztul bakarrean isurtzen dituen bazilo kantitatea.*
*Bota ezazu edozein zenbaki, baina inondik inora ez ahoskatu zure telefono zenbakia, arren. Ez dut biharamun platonikorik nahi, ez dut matematika perfektuetan sinesten.*

## musika

### Bizardunak
*"Ur ederra kirats infinituan"*

Bizardunen taldeak euren hirugarren diskoa aurkeztu berri dute. Taldearen odola osatzen duen folk progresiboa zeltiar kutsuarekin nahastuta dator, eta rock-a gehituz eskaintzen digute lan berri hau. Euren ADN-ri jarraituz, testuetan Euskal herriko historia politikoa eta kritika soziala uztartzen dituzte. Beti ere, jai-giroan murgilduta eta, aldi berean, konpromisoa erakutsiz.






### Zuhaitz Zatitxuak
*"Zuhaitz Zatitxuak Blues"*

Blues, r& eta funk doinuak jorratzen dituen Zuhaitz Zatitxuak Blues Band Soraluzeko laukote gazteak iaz eman zituen lehenengo pausoak. Taldearen izen bera daraman lehenengo diskoa euskarazko eta ingelesezko zortzi kantuk osatzen dute eta, baita, Muddy Waters-en "Hoochie Coochie" eta ZZ Top-en "La grange" abestien bertsioek ere.



### Xabier Etxeberria
*"Udazkeneko lorea"*

Mikel eta Lucia lagun baten ezkontzan ezagutu eta ohera-tu egin dira egun horretan. Mikelek ez dio ezer kontatuko neska-lagunari eta Luciak ere badu isilpean gordetako zerbait. Esan ezin direnei edo esatea komeni ez direnei buruzko eleberri arin eta irakurterraza. Zenbait gertaera aurreikus daitezkeen arren, ez duzu istorioa nola amaituko den jakiteko gogoa galduko.

### Jon Arretxe
*"19 kamera"*

Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den Toure afrikarra da liburuko pertsonaia nagusia. Igarle lanetan hasiko da eta espero gabeko egoeratan katramilatuko. Nobela beltz hau Bilbon kokatu izanak freskotasuna eman dio kontakizunari, sinesgarritasuna ere jokoan egon arren zenbait unetan. Umorerik, gordintasunik eta saltsarik ez zaio falta.




## literatura

**LIBURU SALDUENAK**

1.- *"Martutene" Ramon Saizarbitoria*
2.- *"Tximistak" Jean Echenoz*
3.- *"Etxekalte" Arkaitz Zubiri*
4.- *"Urak dakarrena" Toti Mtnez. de Lezea*
5.- *"Izu-Izua" Jokin de Pedro*
6.- *"Bertan goxo" Karlos Linazasoro*
7.- *"Maitagarria eta desioa" Mariasun Landa*
8.- *"Udazkeneko lorea" Xabier Etxeberria Garro*
9.- *"Piztiaren begiak" Alberto Ladrón Arana*
10.- *"Ez zuten erantzun" Oier Santos*

# Agur Sanandreseri

ARGAZKIAK: Leire Iturbe

*Hotz haundixarekin baiña ateri pasau genduan San Andres eguna. Urteroko moduan azokiak jendetza erakarri eban. Aurtengo* ***irabazliak*** *hónetxek izan dira: Gisasola basarrixa (Eibarko onena); Peio Rubio (Txillarre, Elgoibar) eta Eibarko Zelaikua (aurkezpen onena); azken horrendako izan zan baitta barazkixetako sarixa be; Gabiriko Agerre Berri (frutak); Urretxuko Josune Epelde (eztixa); Elgoibarko Mausitxa (gaztaia) eta Elorrixoko Maite Leanizbarrutia (ogixa). Eurekin batera jaso eben sarixa sanandresetako beste lehiaketetako irabazliak be: Natalia Garridok (kartela, helduen maillan), Garoa Magunazelaia eta Jose Antonio Martínek (kartela, umietan) eta Amesti tabernako Emilio Pitak (pintxo onena).*


Pintxo onena.


Sarituak.


Barricada.


Txistorraren Eguna.


Bertso jaialdia.


Sanandresak Gasteizen.


Bakailao lehiaketa.


Kofrade berriak.



# 47. DURANGOKO AZOKIA: laburragua baiña bete-betia




*Euskal Herriko liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera emotia. Helburu horrekin antolatzen dabe urtero Durangoko Azokia Gerediaga alkartekuak, babesle eta laguntzaille zerrenda luziarekin batera. 47. edizińua beteko dau aurten Azokak eta abenduaren 6tik 9ra egongo da zabalik, Landako Erakustazokan 10.30xetatik 20.00etara. Azken urtiotako bidiari jarraittuta, diziplina eta ekimen ezbardiñetara bideratutako 7 gunetan banatuta topauko doguz programia osatzen daben jarduerak: Areto Nagusixa, Ahotsenea, Saguganbara, Irudienea, Szenatokia, K@bia eta Plateruena, zazpirak bat eginda osatuko dabe aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azokia.*

Areto Nagusixa izango da Azokan egingo diran aurkezpenen bihotza. Danera 46 aurkezpen hartuko dittu guniak, gehixenak liburuenak eta solasaldi eta hitzaldi nagusixak be bertan egingo dira. Erakustazokan bertan, barruan egongo da, sarrera inguruan, Irudienea eta K@biarekin batera. Saguganbara, barriz, oiñ arte “Haur Literatura Aretua” moduan ezagutu doguna ordezkatuko daben gunia izango da eta haur eta gurasueri eskindutako espazio horretan bereziki aittatu bihar dira tallarrak, ohiko ipuin kontalari saio eta aurkezpenekin batera. Ahotseneak, bestalde, sorkuntza makalduko daben krisirik ez daguala agerixan lagako dau. Izan be, 4 egunetan, goizetik gabera, eten barik, aurkezpen eta emanaldixak egingo dira bertan, 88 guztira. Irudienea euskal ikus-entzunezko sorkuntzaren barri jasotzeko toki ezin aproposagua izango dala aurreratu dabe antolatzailliak, *"batez be film laburreri dagokixenian"*. Plateruena kafe antzokixa Azokiaren gune bihurtuko dabe aurten lehelengoz eta, horri esker, Azokiak atiak itxitta be, Azokaren bizitza luzatuko dabe bertan eskinduko diran kontzertu eta bestelako emanaldixak. K@bia teknologixa, sorkuntza, kultura eta edukixen konsumo-joera barrixendako eskaparatia izango da, beti be euskeria ardatz dakela. Arte eszenikuendako tartia be egongo da, Szenatokia izenekuan: bertan bestelako erakustazoka eta jaialdixetan tokirik ez daken euskal sortzailliak euren biharra ezagutzera emoteko aukeria izango dabe. Eta urtetik urtera sendotzen doian Azoka TV-ri esker, internet bidez kanal bi emitiduko dittue. Streaming bittartez Durangokoazoka.com webgunian segitzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak eta, horrez gain, Azokan bertan egongo dan pantalla erraldoian be ikusiko da.

**Nobedadiendako eskaparatia**

Euskal literatura eta disko ekoizpenari begira, Durangoko Azokia benetan hitzordu inportantia dala begibistakua da. Urrixan hasi eta abendura bittartian, argittara emoten diran lan barrixen zerrendia luzatzen eta luzatzen juaten da, beti be begixak Durangon ipiñitta. Aurten Azokiari begira 411 titulu barrik ikusi dabe argixa: 289 liburu, 65 bideo, 32 aldizkari, zazpi liburu elektroniko eta bestelako 18 argitalpen gehixago. Konparatzen hasi ezkero, iaztik hona beherakada txikixa ikusi geinke liburu nobedadietan, iazko titulu barrixak 313 izan ziran-eta, baiña hortik kanpora, beste produktuetan iazko kopuruari eustia eta hainbat kasutan gainditzia be lortu da. Azokan parte hartuko dabeneri begiratzen badetsagu, danera 127 argitaletxe, disketxe, talde, alkarte eta erakunde egongo dira Durangon. Antolatzailliak emondako datuen arabera, iaz Durangon egon ziranetatik bederatzi ez dira aurten bertan izango, baiña ez da holako hutsune haundixa somatuko zortzi eskari barri onartu dittue eta.

Azokiaren iraupena beste batzuetan baiño laburragua izango da: lau egunetan egongo da zabalik, oiñ arte ohikua ziran bost egunetan martxan egon biharrian. Baiña horrek ez dau eragiñ haundirik izango azokiaren inguruan antolatzen diran ekitaldixetan. Are gehixago, gune eta espazio diferentietan garatzeko sekula baiño programaziño zabalagua osatu dabe, 300 ekitaldi baiño gehixagorekin.

Azokia 10.30xetan zabaldu eta 20.30xetaraiño egongo da zabalik, baiña Ahotsenea guniak ordutegi berezixa eukiko dau, bere ordutegixa 22.00ak arte lu-

**EGITARAUA**

**Eguaztena 5**
22.30.- Kontzertua: Gatibu.

**Eguena 6**
13.00.- Elkarrizketa: Carod-Rovira. Mahai-ingurua: "Independentzia olatua", Iñaki Soto, Iñaki Petxarroman eta Arantzazu Zugasti.
22.30.- Kontzertua: Bizardunak + Vendetta.

**Barixakua 7**
13.30.- Erromerixia, Aiko taldiarekin.
22.30.- Motxai-gaba: txalapartarixak, Las Fanis, Arkaitz Estiballes, Vembrule, Amets Arzallus, Bien me sabe…

**Zapatua 8**
13.30.- Iparraldeko kultur-agentien jaixa.
22.30.- Kontzertua: Betagarri.

**Domeka 9**
13.30.- Lasterketaren sari banaketia.
20.00.- Kontzertua: Kherau.

zatuta. Holan, aurkezpen gehixagori tokixa egitteko aukeria eskinduko dau eta, horrekin batera, Azokaren ondoren Plateruenan emongo dittuen kontzertuetarako zubi natural modura jardungo dau. Izan be, Plateruena Kafe Antzokixak Durangoko Azokiaren programaziño ofizialaren parte izango da aurten lehelengoz.

### Deba ibarreko argitalpenendako txokoa

Urteroko moduan, Badihardugu alkartiak stand-a ipiñiko dau Durangon. Badihardugук berak ez dau argitalpen barririk etara aurten, baiña edozelan be Urretxu eta Zumaixako nobedade bana eruango dabela aurreratu deskue alkarteko arduradunak. Halanda be, Badihardugukuak aurten hitzarmen barrixak siñatu dittuenez, iaz baiño liburu gehixago eskinduko detse bisitarixeri: *"Euskeriarekin zerikusixa daken eskualdeko argitalpenekin batera, Euskal Herri osora zabaldu dogu deixa eta hainbat udalerri eta alkartek argitara emondako liburuak izango dittugu ediziño honetan".*

### Motxaillen kulturia

Urteroko moduan, bestalde, kanpoko kultura bati tarte bezixa eskinduko jako Azokan eta aurten motxaillena izango da Durangoko hitzordurako gonbidatu daben kulturia. Antolatzailliak diñuenez, *"motxaillak euskal lurraldian bizi diraIa ehunka urte pasau dira, baiña halanda be, askorendako oindiok be kultura ikuseziña eta urrunekua da".* Kale Dor Kayiko motxaillen alkartiarekin batera jardun dabe biharrian arlo honen barruan eskinduko diranak preparatzeko orduan.



*47. ediziñua abenduaren 6tik 9ra egongo da zabalik.*

Horri esker, kultur programaziño zabala osatu dabe. Bestiak beste, haurrendako taillarrak, ipuin kontalari saiuak eta jokuak antolatu dittue. Horretxekin batera andrazko motxaillen eguna eta euren aldarrikapenak, mahai-inguruak, hitzaldixak, errromintxela, zuzeneko musika emanaldixak, fusiño-ikuskizuna eta beste sorpresa batzuk be egongo dira.

Kale Dor Kayiko alkartea irabazi asmo bariko alkarte kulturala da. 1989xan eratu eben eta harrezkero kulturen arteko alkar ezagutzak eta inklusiño jarduerak osatu dabe bertan egitten daben biharraren ardatza. Egoitza nagusixa Bilboko Txurdinaga auzuan dauka eta Bizkaian ez eze Gipuzkuan be jarduten dabe biharrian. Eibarren bertan bulegua dake, Txaltxa Zelai kaleko 1-behian. Alkartiak lehenago be hartu izan dau parte Azokan. Durangon lehelengoz 2010ian egon zan, Euskadiko Gazteria Kontseilluko stand-ian.

### Argizaiola Benito Lertxundiri

Benito Lertxundi musikarixarendako izango da, bestalde, urtero banatzen daben Argizaiola sarixa. Aurkezpen gitxi bihar dau Orioko abeslarixak, izan be 1960ko hamarkadaz geroztik euskal musikaren sorkuntzan zein kulturgintzan erreferente inportantienetakua izan da bera eta merito osoz jasoko dau errekonozimendua. Gaiñera, Durangoko Azokiarekin berarekin lotura estu-estua daka, bigarren ediziñotik hasitta gaur eguneraiño urtero bertan presente egon da eta, bakarlari modura parte hartu aurretk Ez Dok Amairu taldeko kide moduan, Mikel Laboa, Xabier Lete, Lurdes Iriondo edota aurtengo Azokiarendako kartela sortu daben Nestor Basterretxea artistarekin batera, bestiak beste. Bixar, abenduaren 6xan emongo detse Argizaiola Benito Lertxundiri, Jon Maiak zuzenduko daben "Gauean Argi" ekitaldixan.






# OSASUN GIDA

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**
HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57
AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA
Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura
943 20 18 51

R.P.S. 149/12
bista eder
Irribarreak gaztetu egiten gaitu
Inplante eta Hortz-Estetikan adituak
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.
calbetón hagin klinika
Tel. / Faxa: 943 03 33 03
Fermin Calbeton, 6 - 1. A
clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Jesus Mª Gastesi - Ane Gastesi
Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia / PADI
Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia
Ortodontzia ume eta helduentzat
Mª Dolores Olaizola Doktorea
EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05
MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**
**hortz-klinika**
Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak
Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**
* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
* Min-Unitatea
* Inkontinentzia urinarioak
* Kirol medikuntza
* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

abontza
clínica estética
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
KIRURGIA ESTETIKOA
Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
FISIOTERAPIA ZENTRUA
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

## Okulistak

Centro de Oftalmologia Avanzada
JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
943 12 14 93

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050
ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746
PODOLOGOA
Erdiko klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO
Iñaki Rivero Zabaleta
Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807
Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua
- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
Ana Artamendi
- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
Oscar Mondragon Lili
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

MADINA RADIOLOGIA
- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hortz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

**Hemen zure tokia izan nahi baduzu: deitu 943-206776 telefono zenbakira**

# Partidu guztiak irabazita, Concepto Egile lider



**Debabarrenako talde nagusiak** ikaragarrizko abiadura hartu du eta, orain arte jokatutako bederatzi partiduak irabazita, sailkapeneko lehen postuan kokatu da. Azken jardunaldian 9-0 nagusitu zitzaion Arnedori eta Raulek, Davidek eta Fher-ek bina gol sartu zituzten.

Maqcenter Eibarko taldeak, bestalde, ondo jokatu zuen Laudion Uxoaren aurka, baina azkenean 6-4 galdu zuen. Denboraldiko partidu onena egin zuen, baina ez zuen asmatu ate aurrean.



# Olabe xakelaria 8.a Gipuzkoako txapelketan

**Edu Olabe izan da** Klub Deportiboko ordezkari onena Gipuzkoako txapelketa nagusian, azken jardunaldian Juan Ezpeletari irabazi eta gero. Julen Garrok 11. postuan amaitu zuen eta atzerago sailkatu ziren Jon Arana eta Alex Aranzabal. Hirugarren mailako txapelketan, Jose Antonio Garridok 19. postuan amaitu zuen.

# Waterpolisten asteburu bikaina

**Urbat Urkotronik-eko eskola mailakoek** 20-3 irabazi zieten Waterpolo Donostikoei, gaur egungo liga txapeldunak direla erakutsiz. Zapatuko garaipen horri domekan, San Andres torneoaren barruan, Portugaleteko Naútica-ren aurrean Orbean lortutakoek jarraitu zioten: 10 eta 11 urtekoen taldea 18-10 nagusitu zen eta 13 urtetik 15 urtera artekoena 14-13. Etzi jokatuko da torneoaren azken partidua, Urbat Urkotronik eta Fortunaren artean.



*Beteranoek sasoi bateko ahalmenak erakutsi zituzten euren arteko partiduan.*

# 435 judoka Ipuruako San Andres torneoan

**25 klubeko ordezkariak hartu zuten parte** arrakasta handia izan zuen torneoan. Kirol maila altua izateaz gain, bikain erantzun zioten janari bilketa goiburutzat zuen ekitaldiari. Eibartarrei dagokienez, Kalamuakoek 18 urrezko domina, zilarrezko bost eta brontzezko lau eskuratu zituzten.





# Somos Eibar onenekin

**Estatuko lehen mailako ligan**, bide onetik jarraitzen dute Imanol Alvarezen mutilek Zumaian asteburuan Pulpori 24-31 irabazi eta gero. Emaitza horrekin, Somos Eibar 4. postuan dago, bigarrenarengandik puntu bakarrera. Zapatuan Atarrabiako Beti Onak hartuko dute 19.00-etan Ipuruan: Somos Eibarrek baino hiru puntu gutxiago dute, baina azken irteeran berdindu egin zuten Zaragoza liderraren kantxan.



# Eibartarrak bikain triatloiko Circuito Vasco-Navarroan

**Eibar Triatloi Taldeko Alejandro Altuna** onena izan da beteranoen 2 mailan, Andoni López hirugarrena juniorretan eta Ane Ziaran bigarrena emakumezkoen absoluto mailan. Azken honek amaiera bikaina eman dio denboraldiari, Euskadiko txapela jokoan dagoen hiru distantzietan igo baita podiumera: gorenera sprint-ean, bigarren koskara distantzia olinpikoan eta hirugarren mailara erdi distantzian.



## Gimnasia erritmikako San Andres torneoa bihar

**Bihar 13.00ean hasiko da** Ipurua kiroldegian torneo horretako 14. edizioa: dagoeneko klasikoa bihurtu den lehiaketan 250etik gora gimnastek hartuko dute parte eta tartean izango dira Ipuruako talde federatua eta oinarrizkoa. Lehen mailako zazpikoteak urrezkoa lortu zuen asteburuan Logroñon eta indartsu dago Espainiako txapelketarako astebete geratzen denean. Jardunaldia 19.00etan amaituko da.

## Eibar KE hiru partidu garrantzitsuen aurrean

**Zapatuan izango dute aurrena,** Urritxen 18.00etan hasita Amorebietaren aurka jokatu beharrekoa (ETB1ek emango du zuzenean). Datorren asteko eguaztenean, bestalde, 20.00etan izango dute hitzordua San Mamesen, Kopako itzulerako partiduan. Eta, hurrengo asteburuan Lleida talde indartsua hartuko dute Ipuruan, berriro ere Ligako partiduan. Bilboko partidurako oraindik badaude sarrerak eta, Premier Bidaiak-ek antolatuta, autobusa izango da, 12an bertan, 17.15etan Ego-Gainetik irtengo dena.



## Unamunzaga-Bengoetxea finalean galtzaile



